



Sopelako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra

## Parte-hartze Txostena



## **AURKIBIDEA**

<b>1/ SAIOEN DISEINUA</b>	<b>3</b>
<b>2/ PARTE-HARTZE DATUAK</b>	<b>10</b>
<b>3/ ONDORIO OROKORRAK</b>	<b>11</b>



## SAIOEN DISEINUA.

- **Saioan parte hartuko dute:** Erredakzio Taldea + Hiritik At
- **Saioa dinamizatu du:** Hiritik At
- **Saioaren iraupena:** 2 ordu

- **Helburuak:**

Gaikako tailerrak eginez, HAPOaren diagnostiko-dokumentua aberastuko duen eztabaida bultzatu eta herritarrek udalerrriaren etorkizunari lotutako funtsezko ideiei buruz duten iritzia jasotzea. Ideia horiek Aurrerapen fasean aztertu eta garatuko dira. Erredakzio taldeak egindako dibulgazio-dokumentuan oinarrituta, saioaren helburua izan da hainbat gairi buruzko iritziak baliozkotzea, zalantzan jartzea edo euron gaineko hausnarketak eragitea. Gai horiek honakoak izan dira, besteak beste, mugikortasuna, etxebizitza, jarduera ekonomikoa eta paisaia, eta, batez ere, herritarrek iritzi-emateko oinarritzat erabiliko den aurretiazko txostenean identifikatutako gaietan jarri da fokua. Horretarako, interes handieneko gaiak identifikatu dira, edo polarizaziorik handiena eragiten dutenak, helburua eztabaida sortzea eta horri buruzko iritziak mahai gainean jartzea delako. Landu diren gaietara eta bizilagunen gizarte-errealitatera egokitu da metodologia. Parte-hartze kualitatiboa bilatzen saiatu gara.

- **Parte-hartzeko deialdia:**

Udalerriko kolektiboak eta taldeak identifikatu dira (ahal dela dagoeneko eratuta daudenak), eta berriazko deialdia egin da parte har dezaten. Saio irekietan parte hartzeko zailtasun handiena duten pertsonekin ahalegin berezia egin da, beren narratiba eta diskurtsoa presente egon daitezen; hain zuzen ere, adinekoak, mugitzeko arazoak dituztenak, hizkuntza menderatzen ez dutenak... edo parte hartzeko beste oztopo batzuk dituztenak.

- **Saioetan landuko den tematika:**

Saio guztiek honako galdera hau izan dute gidalero:

**Sopelan,**

**nola lor dezakegu denontzako bizigarriagoa izango den etorkizuna?**

Gai bakoitzari buruzko eztabaida eta elkarrizketa aipatutako galdera horretan oinarrituta egin dira, fokua Sopelaren etorkizunean jarrita beti; eta, aldi berean, genero-ikuspegia eta dauden beharrian guztiak kontuan hartuta, ingurumenaren aldetik Sopela herri jasangarri bilakatzeko nahia ahaztu barik .

Saio bakoitzean landuko diren gai zehatzak:

- 1.saioan: mugikortasuna eta azpiegiturak, espazio publikoa eta ekipamenduak, eta paisaia eta landa eremuak.
- 2.saioan: etxebizitza, jarduera ekonomikoak, eta hirigintza garapenak.

- **Saioen egitura:**

(15') Sarrera: saioaren aurkezpena, prozesu parte-hartzailearen testuingurua, parte hartzeko mugarren azalpena eta parte hartzeko bideak.

(60') Mahaikako saioa (tematikoak): 20' mahai bakoitzak bere gaia lantzeko.

(20') Bateratze-saioa: mahai bakoitzean jasotako ondorioak bateratzeko.

(05') Saioaren amaiera.

- **Metodologia:**

World Kafea izeneko metodologia erabili da saioetan. Elkarrizketa kolaboratiboa oinarritzat duen sormen-prozesua da World Kafea. Talde txikietan jarrita, bertaratuek beraien ezagupenak eta ideiak partekatzen dituzte.

Saioetan parte-hartzaileak talde txikietan batu dira. Talde guztietan landu dituzte saio bakoitzerako proposatutako gai guztiak; gaiak mahairik mahai mugituko dira, horrela, parte-hartzaileek ez dute mahai batetik bestera joan-etorrietan ibili behar. Txandakatze horren helburuak hauek dira: aurreko taldeak esandakoa aberasten joatea, talde txikietan gai komunak aztertzea eta elkar-elikatzea..

Hainbat galderak proposatu dira gai bakoitzaren inguruan hausnartzeko eta, horrela, parte-hartzaileek herriaren etorkizuna zelan irudikatzen duten jakiteko. Egindako ekarpenak, hausnarketak eta emandako informazioa antolatzeko, AMIA bat osatu da. Horretara, ideiak taula horretan batuta geratuko dira. Metodo hori erabiltzea garrantzitsua da datuak behar bezala jasota gera daitezen.

AMIA taulaz gain eta landu diren gai inguruko gakoak biltzen dituzten laguntza-orriez aparte, talde bakoitzaren mahai gainean udalerrriaren mapa bat jarri da, parte-hartzaileek ekarpen georreferentziatuak egiteko aukera izan dezaten.

Ondorengo lerroetan azaltzen dira, saioan erabili diren teknika metodologiko biak:

> **WORLD KAFEA:**

Zer da World Kafea? Garrantzizko gaien inguruan elkarrizketa-sare bizia sortzeko teknika bat. Sormen-prozesua da, lankidetzako elkarrizketa sortzeko bide dena, non ezagutza partekatzen den eta ekintzarako aukerak sortzen diren tamaina guztietako taldeetan.

World Kafe metodologia (munduko kafea) giza elkarrizketa prozesu interesgarria eta hurbila da. Pertsona talde bati galdera astunei buruz hitz egiteko aukera ematen dio, ideia, akordio eta ekintza-bide sortzaile eta berritzaileak sortzeko, kafetegi baten antzeko giro atsegina eta adiskidetsuan.



Mahai batzuk jartzeko espazio zabala aukeratzen da; parte hartzen duten pertsonen kopuruaren arabera mahai gehiago beharko dira. Galdera esanguratsu bat aukeratzen da, parte-hartzaileentzat garrantzitsua dena eta hainbat ikuspegi aztertzea eskatzen duena. Elkarriketa-txandak ezartzen dira, 20 eta 30 minutukoak, interes komuneko gaiei buruz. Pertsonak mahaiz aldatzen dira txandetan zehar; horretara, denbora-tarte laburrean konexio-sare zabala sortzen da, horixe da-eta sustatu beharrekoa. Kasu honetan, jendea mahai batetik bestera mugitu beharrean, gaiak izango dira mahairik mahai trukatu direnak.

Txanda horien ondoren, talde osoa batuko da iritziak denen artean partekatzeko. Parte-hartzaileei eskatzen zaie, bereaien kafe-ko txandetatik atera diren ideia nagusiak zeintzuk izan diren aztertzen minutu batzuk eman ditzatela, beraientzat esanahi handiena dutenak eta elkarriketa horietatik erator daitezkeen ideiak foro irekian plazaratu ditzaten.

#### > AMIA:

Zer da AMIA? Proiektu bati buruzko ebaluazioa egiteko teknika da. Teknika hori erabiltzen da proiektu jakin baten inguruan hainbat arlotako informazioa izan nahi dugunean, oraina eta etorkizuneko proiektzioa ebaluatzeko.

Ahulguneak eta Mehatxuak jatorri endogenoko eta exogenoko alde negatiboak dira, hurrenez hurren; hau da, proiektuaren mugen edo oztopoen adierazle dira, lurraldearen elementu batean edo batzuetan proiektu hori garatzeko gaitasuna geldiarazten dutenak.

Potentzialtasunei dagokionez, Indarguneak jatorri endogenoko eta positiboko aldeak direla esaten dugu, eta aukerek jatorri exogenoa dutela, eta lurralde-baliabideen balorizazio edo aprobetxamendutik datozela.

Elkarriketa sortzen laguntzeko, landu beharreko gai bakoitzean Sopelak dituen indarguneak eta ahulguneak identifikatzen lagun dezaketen hainbat gai planteatuko dira.

- **Indarguneak detektatzeko funtsezko galdera:**

Zeintzuk dira Sopelak dituen INDARGUNEAK *mugikortasunari eta azpiegiturei* dagokionez, denontzako etorkizun bizigarriago bat lortzeko?

- **Ahulguneak detektatzeko funtsezko galdera:**

Zeintzuk dira Sopelak dituen AHULGUNEAK *mugikortasunari eta azpiegiturei* dagokionez, denontzako etorkizun bizigarriago bat lortzeko?

- **Mehatxuak detektatzeko funtsezko galdera:**

Zeintzuk dira Sopelak dituen MEHATXUAK *mugikortasunari eta azpiegiturei* dagokionez, denontzako etorkizun bizigarriago bat lortzeko?

- **Aukerak detektatzeko funtsezko galdera:**

Zeintzuk dira Sopelak dituen AUKERAK *mugikortasunari eta azpiegiturei* dagokionez, denontzako etorkizun bizigarriago bat lortzeko?

- **MUGIKORTASUNA ETA APIEGITURAK**

**Azpiegiturak**

- > Eskualdeko beste herriekiko konexioa
- > Tren konexioa
- > Udalerriaren bide perimetralak

**Mugikortasuna**

- > Oinezkoen ibilbideak
- > Bidegorriak
- > Garraio publikoa: autobusa eta trenak
- > Aparkalekuak
- > 30 km/h-ko eremuak
- > Trafikoa debekatuta duten kaleak
- > Oinezkoek eta ibilgailuek partekatutako kaleak
- > Nolakoak da elkarbitzita pertsona, bizikleta, kotxe, motor, autobus eta gainerako en artean?

- **ESPazio PUBLIKOA ETA EKIPAMENDUAK**

**Espazio berdeak**

- > Espazio berdeen sarea
- > Herrian berdeguneak txertatzea
- > Nolakoak izan beharko lukete?  
Tamaina/Kokapena/Erabilera/Izaera/Ibilbideak

**Espazio publikoa**

- > Espazio publikoen sarea
- > Gertuko espazio publikoak
- > Nolakoak izan beharko lukete?  
Tamaina/Kokapena/Erabilera/Izaera/Ibilbideak

**Ekipamenduak**

- > Zein ekipamendu mota behar da Sopelan?
- > Eskualde mailako zein ekipamendu kokatu beharko litzateke Sopelan?
- > Nolakoak izan beharko lukete?  
Tamaina/Kokapena/Erabilera/Ibilbideak

- **PAISAIA ETA LANDA EREMUAK**

**Landa eremuak**

- > Zer behar izan dute gaur egun landa eremuek eguneroko bizimoduan?
- > Zer nolako bilakaera aurreikusten da?
- > Zer behar berri sortuko dira landa eremuan belaunaldi aldaketari begira?
- > Badago landa eremuari lotutako erabilera berriren batzeko behar izanik?
- > Auzoen arteko lotura
- > Herrigunearekiko lotura
- > Natur ibilbideak

**Paisaia**

- > Babes eremuak
  - Basoak
  - Hondartzak
  - Iturburuak
  - Errekak
- > Hondakinen kudeaketa

- **ETXEBIZITZA**

- > Zein beharrizan daude Sopelan etxebizitzari lotuta?
- > Etorkizunean zer-nolako bilakaera aurreikusten da etxebizitza arloan?
- > Etorkizunean gazteen beharrizanei erantzuteko zein neurri hartu beharko lirateke?
- > Etorkizunean nagusien beharrizanei erantzuteko zein neurri hartu beharko lirateke?
- > Etorkizunean giza-talde zaugarrienen beharrizanei erantzuteko zein neurri hartu beharko lirateke?
- > Imajinatzen duzu gaur egun ez dagoen etxebizitza aukerarik? Zein tipologiakoa?
- > Zelan imajinatzen duzu landa eremuko etxebizitzaren bilakaera?
- > Uholdeak direla eta, zein beharrizan daude etxebizitzaren ikuspegitik?
- > Uholdeak eta etxebizitzak direla eta, zein neurri hartu beharko lirateke etorkizunera begira?
- > Eraikinen zaharberritzea
- > Etxebizitza hutsak


- **JARDUERA EKONOMIKOAK**

- > Nola baloratzen duzu gaur egun Sopelak daukan ehun ekonomikoa?
  - Komertzioak
  - Zerbitzuak
  - Lehen sektorea
  - Landa eremuari lotutako aktibitate ekonomikoak
  - Industria
- > **Etorkizunera begira** nola imajinatzen duzu Sopelak daukan ehun ekonomikoa?
  - Komertzioak
  - Zerbitzuak
  - Lehen sektorea
  - Landa eremuari lotutako aktibitate ekonomikoak
  - Industria

- **HIRIGINTZA GARAPENAK**


- > Gaur egun dauden garapen mota guztiak (etxebizitzak, zerbitzuak, aktibitate ekonomikoa...) nola baloratzen dituzu?
- > Nolako da inguruarekin eta herritarrekin duten harremana?
- > Lurraren artifizializazioari dagokionez, nola ikusten duzu etorkizuna?
- > Gaur egun dauden etxebizitza garapenak nola baloratzen dituzu?
- > Etorkizunean etxebizitza garapenak egin beharko lirateke? Egingo balira, nolakoak imajinatzen dituzu? Egitekotan, zein eremutan aurreikusten dituzu?
- > Gaur egun dauden zerbitzuei (publikoak eta pribatuak) lotutako garapenak nola baloratzen dituzu?
- > Etorkizunean zerbitzuei (publikoak eta pribatuak) lotutako garapenak egin beharko lirateke? Egingo balira, nolakoak imajinatzen dituzu? Egitekotan, zein eremutan aurreikusten dituzu?
- > Gaur egun dauden aktibitate ekonomikoei lotutako garapenak nola baloratzen dituzu?
- > Etorkizunean aktibitate ekonomikoei lotutako garapenak egin beharko lirateke? Egingo balira, nolakoak imajinatzen dituzu? Egitekotan, zein eremutan aurreikusten dituzu?
- > Zein eremu babestu beharko litzateke garapenetik?

- Informazioa biltzeko taula:



Saioaren amaieran, gaien arabeko bateratze-lana egin da, eta 20 minutuko denbora-tartea eman da horretarako. Garrantzitsua iruditzen zaigu bateratze-lan horri kalitatezko denbora ematea, une horretan azalduko baitira argien desadostasunik handiena eragiten duten puntuak. Bateratzean sortzen diren gaiak hurrengo taulan jaso dira, mantendu nahi diren eta hobetu daitezkeen ideien ikuspegia izateko.

- Bateratze-saioan emandako informazioa biltzeko taula:





- **Genero ikuspegia, zehar-lerro modura aplikatuta**

Parte-hartzea, generoaren ikuspegitik, ezinbesteko praktika da. Izan ere, hirigintza arloro emakumeen bizi-esperientzia ekartzen du eta, gainera, andre askok egunerokoan duten egiteko ikusaraztea ahalbidetzen du. Erronka handia da partaidetza-prozesu inklusiboak, integratuak eta lotesleak egitea, ahots ugari eta anitzek pisua izan dezaten. Komeni da parte hartzeko kanal eraginkorrak irekitzea espazio publikoaren, zuzkidura-ekipamenduaren eta abarren esparruan elementuak edo espazioak definitzeko eta diseinatzeko.

Hirigintzari buruzko begirada feministak zera esan nahi du: hiri-paisaia esku hartu nahi bada, parekatu egin behar direla produkzio-mundutik eratorritako eskakizunak eta erreprodukzio-munduaren eskaerak. Hau da, haurren, adinekoen edo dibertsitate funtzionala duten pertsonen premiak erdigunean jarri behar direla, baina ez subjektu homogeen gisa, baizik eta beste aldagai batzuk kontuan hartuta, hala nola, adina, arraza edo sexu-orientazioa.

Espazio publikoari dagokionez, kontuan hartu beharko dira sarbideak, irisgarritasuna, materialak, altzariak, landaredia, argiztapena eta eguzkitzea, ura... eta pertsona guztientzako espazio publiko atseginak eta kalitatekoak sortzen laguntzen duten gainerako alderdiak, gogoan izanda mendeko pertsonen autonomia eta zaintzaileen askatasuna (gehienak emakumeak) sustatu behar direla.

Espazio publikoak erabiltzeko autonomia eta askatasun gisa ulertu behar da segurtasun-sentsazioa. Garrantzi handiko aldagaia da, pertsonen mugimenduak baldintzatzen dituen; hala, espazio publikoak etsai-girokoak eta besteenak direla iritziz gero, utzi egiten zaio espazio horiek erabiltzeari eguneroko bizitzako jarduerak garatzeko. Beraz, segurtasun-pertzepzioa hobetzeko neurriak hartu beharko dira, espazio publikoan oztopo arkitektonikoak ezabatuz; adibidez, garraio publikoaren geltokiak eraikitzeko material gardenak erabiliz. Era berean, eraikuntzatik segurtasun-sentsazio handiagoa bermatzeko aldaketak ere sar daitezke; esate baterako, balkoiak, terrazak edo begiratokiak ugaritzeak kalean gertatzen dena hobeto kontrolatzeko bidea ematen du, eta, beraz, ikusiak izaten laguntzen dute. Beste ekimen bat eraikinetako beheko solairuetan merkataritza edo ekipamenduak kokatzea da.

Irisgarritasunari eta, oro har, mugikortasunari dagokienez, arreta berezia jarri behar da oinezkoentzako loturetan eta, batez ere, ibilgailuek oinezkoen ibilbideekin bat egiten duten tokietan, hala nola: garaje-irteerak, aparkalekuetarako sarbideak, bidegurutzak, bideak gurutzatzeko pasabideak eta autobus-geltokiak. Oinezkoentzako ibilbideak seguruak izan daitezen, gomendagarria da honakoak kontuan izatea: errepideetan dauden oinezkoen pasabideak, zoladura mota, oinezkoentzako sarbideak... Irisgarritasun unibertsalaren, segurtasunaren eta garraio publikoaren garapenaren baldintzak hobetzeko jarduerak emakumeen mugikortasuna sustatzen dute, emakumeak baitira garraio publikoaren erabiltzaile nagusiak mugikortasun jasangarriaren esparruan. Halaber, gomendatzen da azterlan zehatzagoa egitea autobus-geltokien irisgarritasunari eta espazio publikoarekiko loturari buruz, bai eta iristeko zailtasun handienak dituzten eremuekiko konexioa aztertzea ere, hala nola industrialdeekiko konexioa; izan ere, garraio publikoaren erabilera sustatzearekin batera, erabilera unibertsal bihurtzen lagunduko duten neurriak hartu behar dira eta.

- **Hizkuntza irizpideak**

Parte-hartze tailerretan euskara bermatuko da, eta ahal den heinean, lehenetsiko da. Horretarako, lan-taldeak hizkuntzaren arabera osatzea proposatuko da. Jakina da, bakoitzak erosen sentitzen den hizkuntzan azalduko duela bere burua uneoro.

# 2/

## PARTE HARTZE DATUAK.


Guztira, 50 lagunek hartu dute parte bi saioetan. Parte-hartze tailer bakoitzean lau mahai sortu dira partaidetzara eta espazioaren dimentsiora egokitutako WorldCafé metodologia gauzatzeko, 5 eta 8 pertsona arteko taldeak sortuz. HAPOa bezalako dokumentu estrategiko bati begira, eta Sopolako biztanleriari erreparatuz, kuantitatiboki, ez da altua. Aipatu behar da web orriaren bidez online parte hartzeko aukera dagoela, eta bide horrek aurrez aurreko prozesuarekin bat egiten du, bertaraterik izan ez duenari parte hartzeko aukera emanez.

### 1.saioa:


Eguna: otsailak 16, osteguna  
Parte-hartzaile kopurua: 31

### 2.saioa:


Eguna: otsailak 23, osteguna  
Parte-hartzaile kopurua: 19



Generoari dagokionez, gizonen parte-hartzea emakumeena baino txikiagoa izan da, % 60 eta % 40, hurrenez hurren. Adin-tartearen inguruko ordezkaritzari dagokionez, parte-hartzaileen % 36k 46 eta 60 urte bitartean ditu, eta proportzio antzekoan parte hartu dute 61 eta 75 urtekoek, % 30eko parte-hartzearekin. Ondoren, %18ko parte-hartzearekin 31-45 urte dituztenak daude. Gutxiengoan geratzen dira, beraz, 18 eta 30 urte bitarteko ordezkaritza (%8) eta 75 urtetik gorakoena (% 8). Biztanleria gaztea erakartzea erronka bat izaten ari da, baita biztanleria zaharrenarengana iristea ere; hala ere, aipatu behar da adin-tarte ezberdinak beste leku batzuetan baino ordezkatuagoak geratzen direla. Oro har, balioesten dugu parte-hartze kuantitatiboa ez dela txikia izan, eta, beraz, horri eusten saiatu beharko dela, baita Aurrerapen Faseari begira sustatzen ere.



● Emakumea  
● Gizona  
● Ez bitarra



● 18tik behera  
● 18-30  
● 31-45  
● 46-60  
● 61-75  
● 75etik gora

# 3/

## ONDORIO OROKORRAK.

Ondoren, gaiaren arabera ezagutuko ditugu herritarren ekarpenak eta hausnarketak, eta horiei buruzko ondorio orokorrak jasoko ditugu. Hor batutako guztiak estrategia orokor batzuk emango dizkigu Sopela bizigarriagoa eraikitzen lagunduko digun Aurrerapen dokumnetua idazten hasteko.

### / MUGIKORTASUNA ETA AZPIEGITURAK

Mugikortasuna da gure herri, hiri eta lurraldeen oinarria. Sopolaren kasuan, ez gaude udalerrri oso zabal baten aurrean, baina mugikortasunerako azpiegiturak oso presente daude. BI-634/BI-2122 errepideak iparraldetik hegoaldera zeharkatzen du udalerrria, eta metroaren bideak ekialdetik mendebaldera.

BI-634/BI-2122 errepidearen presentzia oso handia denez herrian, behin eta berriz eskatzen da ingurabidea Urko ingurutik eraikitzea, udalerrriaren erdigunea arintzeko. Gaur egun, herria zeharkatzeko denbora lar behar da, eta sarrerek eta irteerek pilaketak izan ohi dituzte, batez ere, Urdulizekoak. Ingurabidea eraikitzeak zirkulazioaren fluxua murriztuko luke bai auzoetan eta bai herrigunean. Ibilgailuen zirkulazioari dagokionez, Sopolako bizilagunak kezkatzen dituzten beste gai batzuk daude: bidegurutze arriskutsuak, esate baterako, Olabide kalea eta Gatzarriñe kalearen arteko bidegurutzea; Loiola Ander Deuna kaleko zatian errespetatzen ez diren abiadura-mugak, non muga 30 km/h-koa den; Gatzariñe kalean (Bizkaiko Foru Aldundiaren errepidea) eta Iberre eta Ungitzieta inguruetan trafiko jasanezina, eta hori Abaroko bizitegi-garapen berria eraiki gabe dagoela, zeinek zirkulazioa areagotuko duen. Halaber, ospitaleko trafikoa bideratzeko saihezbideak bilatu behar direla adierazi dute, herritarrak eta ingurumena ahal den neurrian babestuz eta errespetatuz. Trafikoak kezka sortzen du eta positibotzat jotzen da Loiola Ander Deuna kalea boulevard bihurtzeko aukera.

Ibilgailu motordun pribatuaren lerroari jarraituz, aparkalekurik ez dagoela aipatzen da. Udalerrri askotan errepikatzen da gai hori. Nahiz eta joera auto kopurua murriztea izango den, gaur egun azalera handia hartzen jarraitzen dute. Aire zabaleko aparkalekuak sortuz gero, interesgarria litzateke aparkaleku bigunak eta jasangarriak aukeratzea, etorkizunean aparkaleku horiei beste erabilera bat eman ahal izateko. Motordun ibilgailuez gain, ez dugu ahaztu behar bizikletek eta patineteek ere aparkatzeko lekua izan behar dutela.

Garraio publikoari dagokionez, metro-zerbitzua eta autobus-zerbitzua ez dira nahikoak, eta indartu egin beharko litzateke. Alde batetik, Sopolbuseko udal-zerbitzua indartzeko ideia aipatzen da; eta, bestetik, metroaren azpiegitura hobetzeko eskatzen da, Sopolarako metro-maiztasuna handitu ahal izateko. Azken ideia hori metroko kotxetegiak handitzearekin eta udalerritik igarotzen diren bideak lurperatzearekin lotuta egongo litzateke, horrek dituen zailtasunekin.

Garraio publikoaren erabilera sustatzeko, metro-geltokietatik gertu disuasio-aparkalekuak sortzea edo horietara iristeko anezka-zerbitzua aktibatzea oso garrantzitsua da, batez ere periferiako edo landa-inguruetakoa auzoetan. Horrez gain, ibilgailu pribatu motordunaren alternatiba gisa eta hiriko mugikortasunari erantzunez, bizikleta elektrikoak eta patinete elektrikoak aukera bideragarriak bezala ikusten dituzten herritarrek. Ideia horrekin batera, Bizkaibizi sarearen parte izatea eskatzen da. Sare hori Bizkaiko Foru Aldundiak bultzatzen du itsasadarraren bi aldeetako udalerriak lotzeko, eta gaur egun Getxoraino iristen da.

Mugikortasun-sistema iraunkorra sustatze aldera, ezinbestekoa da bidegorrien sarea kontzienteki diseinatzea eta integrala izatea. Bizikletaz modu seguruan mugitzea bai udalerrian zehar, eta bai udalerrira mugakide edo hurbiletara, oso garrantzitsutzat jotzen da. Egungo sarea osatu gabe dago, lotura askorik gabe, eta zenbait puntu arriskutsuak dira. Horretarako, beharrezkoa da bidegorriek jarraitutasuna eta lehentasuna izatea ibilgailu motordunen aurrean, oro har sare eraginkorrek eraikitzea. Jakina, ibilgailu hauen erabilera sustatzeko, sare horrek bizikletentzako aparkalekuak izan beharko ditu, eta ekipamendu eta zerbitzu publikoak konektatu beharko ditu.

Mugikortasun jasangarriago baten bila mugikortasun-piramidea alderantzikatuko balitz, oinezkoentzako espazioak gailenduko lirateke. Horrenbestez, funtsezkoa da pertsonentzako eremuei arreta jartzea, bai elkartzeko guneei, bai oinez mugitzeko kale eta sareari. Hau da, oinezkoen eskala lehenestea. Oinezkoentzako guneak (eremu peatonalak) positiboki baloratzen dira, eta interesgarria ikusten horiek erdigunean hedatzea, ez soilik herritarren mesedetan, baita saltoki txikien mesedetan ere. Gai honekin amaitzeko, sopoloztarrek, alde batetik, oinezkoentzako bideak eskasak ez izatea eta dauden oztopo arkitektonikoak desagertzea eskatzen dute, eta, bestetik, paseatzeko espazio gehiago egotea, eta interes berezia jartzen dute Munarrikolandako muinoan.

## **/ ESPAZIO PUBLIKOA ETA EKIPAMENDUAK**

Sopelako herritarrek espazio publikoari, berdeguneei eta ekipamenduei dagokienez asko hobetzeko ikusten dute; oraingoak, dirudenez, ez dira nahikoak, gutxiegi daude edo ez dira ondo mantentzen. Ekipamenduei dagokienez, bi gai argi daude: lehenik, zuzkidura-eraikin batzuk berritzea eta handitzea, eta, bigarrenik, zerbitzu berriak sortzea. Aldiz, espazio publikoari dagokionez, konexioa eta irisgarritasuna eskatzen da.

Ekipamendu-sare egokia sortzea funtsezkoa da hiri-eredu irisgarri baterako; beraz, dauden ekipamenduak eta berriak haien artean ondo konektatzea ezinbestekoa da. Horretarako, espazio publikoaren jarraitutasuna lortu behar da, eta arreta berezia jarri behar zaio oinezkoen mugikortasunari. Halaber, eraikinak hartuko dituen erabilzailleen kopuruaren arabera, eraikinaren kokapena eta dimentsioa erabaki beharko da.

Hezkuntza-ekipamendua zaharkituta dago. Zipiriñeko eskola publikoa txiki geratu da eta oso garrantzitsua da lehenbailehen handipena diseinatzea. Gai horrek urteak daramatza mahai gainean, baina oztoporik handiena da lursail hurbil bat aurkitzea, horretarako egokia izango dena eta ingurumenean eragin handirik izango ez duena.

Kirol- eta kultura-ekipamenduak desagokitzat jotzen dira. Gainera, oso presente dago tamaina eta edukiaren gaia: gaur egun jada ez diete zerbitzua ematen sopoloztar guztiei, eta, beraz, biztanleria handitzen denean, handitu edo berriak sortu beharko dira. Bereziki liburutegia eta Kultur Etxea aipatzen dituzte, baita igerilekua eta gimnasioa kirol ekipamenduei dagokionez. Rokodromoa hobetzeko nahia ere aipatzen da, segurtasuna, estalkia, eta hobeto ekipatzea eskatuz.

Ekipamendu publikoekin amaitzeko, udalerrian zerbitzu berriak sustatzea proposatzen da, hala nola auto-karabanetarako aparkaleku bat edo kanpoko igerileku bat. Era berean, eta Sopelan bizi diren pertsonen eta, batez ere, adineko pertsonen bizi-beharrei erantzunez, behin eta berriz eskatzen da komun publikoak egotea udalerrian zehar. Gaur egun La Salvaje hondartzako komun publikoa baino ez dago martxan, eta zaharkituta dago.

Espazio publikoari dagokionez, oztopo arkitektonikoak eta gurpil-aulkidunentzat edota mugitzeko arazoak dituzten pertsonentzako irisgarritasun-falta aipatzen dira. Herritarrek paseatzeko gune gehiagoren falta sumatzen dute, eta lehendik daudenak indartzea eta hobetzea eskatzen dute. Oinezkoen sarea Urko hezegunearekin, Manenes eta San Andres eremuekin eta Abaro eremuaren etorkizuneko erabilerarekin lotzea erakargarritzat dute. Ideia utopiko gisa, metroa lurperatzeko eta boulevard bat sortzeko aukera ere agertzen da. Espazio publikoen sarean, haur-parkeak kontuan hartu behar dira, aniztasuna eta osasuna ardatz. Auzo guztiek topaleku bat izan beharko lukete, hala nola plaza edo parke bat. Iturrietako parkea (Balea parkea bezala ezaguna) udalerriko indargune gisa ikusten da, adin talde ezberdinentzako gune egokia.

Azkenik, hurrengo atalean sakonago aztertuko duguna, berdeguneen sarea. Herriguneko eskala txikiko berdeguneak, espazio libre eta naturalenekin lotzea desioztat dute Sopelako herritarrek. Loturaz gain, espazio berde berriak sortzea edota egungoak handitzea ere aipatzen da, batez ere Larrabasterra auzoan. Arlo honetan, garrantzitsua da hiri-paisaiari arreta jartzea; eta beraz, lorategietan landare autoktonoak landatzea derrigorrezkoa izatea. Paisaia ekologiko horren parte baratze komunitarioak proposatzen dituzte. Garrantzitsua da berdegune horiek espazio publikoen sarean, aisialdirako eta aisialdirako gune gisa erabiltzeko, baina, batez ere, natura- edo ingurumen-baldintzetan errespetatzeko. Eratzun berdeak paper garrantzitsua izango du azken ideia honen aurrean.



## / PAISAIA ETA LANDA EREMUAK

Sopela ondare natural eta arkeologiko handia duen kostaldeko udalerrria da, eta beharrezkoa da horri balioa ematea. Gai honen harira, hiru ideia sendo daude: landa-eremuak babestea eta azpiegitura urdina eta berdea berreskuratzea, eta hondakinak ondo kudeatzea.

Sopelako landa-eremuak hormigoia-aren, urbanizazioaren eta eraikuntza masiboaren alde desagertzen ari dira. Dentsitate txikiko egoitzen eraikuntzak eragin du egoera hori, landa-lur azalera handiak hartu direlako. Horren aurrean, alde batetik, hazkundeari muga bat jartzea eskatzen da. Bestetik, Sopelako landa-eremuak indartu, babestu eta balioetsi behar direla defendatzen da. Interesgarritzat jotzen da baserrien eta udalerriko landa-eremu esanguratsuenen mapaketa egitea, horiek babesteko eta mantentzeko, bai eta egon daitezkeen kultura-intereseko elementuak ere, hala nola errotak, bideak eta abar. Horretaz gain, lehen sektorearen desagerpenaren gaia dago, eta, horren aurrean, Udalaren eta nekazaritzan eta abeltzaintzan diharduten pertsonen arteko akordioak sustatzea proposatzen dute, Sopelako landa-eremua behar bezala kudeatzeko.

Landa-eremuei dagokienez, bideen gaia dago. Udalerriko inbentariotik bide publikoak eta baso-pistak berreskuratzea eskatzen da, behar bezala erabiltzeko. Hala ere, kontua ez da horiek berreskuratzea bakarrik, mantendu eta egokitzea baizik, baita baso-lanak egin ondoren pistak baldintza onetan uztea ere, adibidez. Landa-auzoetako mugikortasuna eta udalerraren erdigunearekiko eta zerbitzu publikoekiko lotura arretaz zaindu beharreko arloa da.

Sopelako azpiegitura urdin-berdea aberatsa da. Azpiegitura urdinari dagokionez, ezinbestekoa da erreken ibilguak babestea, ibaiertzak berreskuratzea eta udalerriko ibai eta errekei balioa ematea (Lemotza eta Matadero, besteak beste). Ekintza horien helburuetako bat uholdeak edo ur-goraldiak saihestea da; zehazki aipatzen da Abaro inguruko zubia egokitzea. Ildo horretan, oso garrantzitsua da itsasoan amai daitezkeen isurketak kontrolatzea eta saihestea. Berdeguneak gero eta beharrezkoagoak dira, eta zenbat eta biztanle gehiago orduan eta gehiago behar dira espazio horiek, arnasteko, batik bat. Hala ere, biztanleek uste dute eremu horiek murrizten ari direla. Espezie inbasoreen eta eukalptoen mehatxua ere presente dago Sopelan. Egoera horren aurrean, proposatzen da biodibertsitatea zaintzea, espezie autoktonodun mikro-basoak katalogatzea eta babestea, eta erabilera publikorako baso-mendiko lurzatiak lagatzea edo erostea, eta, horrela, eremuak berreskuratzea. Era berean, Manenes, Lemotza eta Gobelako gune naturalak mantentzea, Urko hezegunea, San Andres pinudia (balio ekologiko handiko lekua) eta kostaldea babestea eta balioan jartzea, bertan garatu daitezkeen jarduerak murriztuz. Sopelako Eratzun Berdea eratzea martxan dago. Proposamena positibotzat eta beharrezkotzat jotzen da, eta, beraz, hori sustatzea eskatzen da. Eratzun berdea hiri-paisaiaren eta paisaia basatienaren arteko lotura izango da, biak indartuz.

Azkenik, gai honi dagokionez, hondakinen kudeaketa ere aipatu behar da. Arreta berezia jarri behar zaio kudeaketa horri, eta edukiontzietako hondakinak sailkatzeko erabilera egokia sustatu behar da, batez ere hondakin organikoen edukiontzi marroiarena. Asegabetasun horren aurrean, saltokietan gaikako bilketa egitea, jarduera horietan tamaina handiko hondakinen bilketa bultzatzea eta edukiontziak husteko maiztasuna areagotzea proposatzen da.

## / ETXEBIZITZA

Etxebizitzaren gaia ez da berria, baina gaur egungo erronketako bat izaten jarraitzen du, Sopelan eta gainerako udalerrri eta hirietan. Ez dago zenbakietan sartu beharrik, etxebizitzaren egungo diagnostikoa agerikoa da-eta: etxebizitza-parkea zaharra da, irisgarritasun-falta nabarmena da, hiri-konfigurazioa ez da orekatua, etxe hutsen kopurua altua da, eta etxebizitzaren prezioa oso altua da. Aipatutako gaiak modu batera edo bestera herritar guztioi eragiten digute. Irisgarritasunari buruzko gaiak mugikortasun urriko pertsonei, adinekoei eta haur-kotxea dutenei dagozkie. Etxebizitzaren prezioak eta merkatuak, ordea, arazo kolektiboa izan arren, eragin zuzenagoa dute gazteengan. Egoera horren aurrean, Sopelako herritarrek honako hau adierazi dute.

Lehenik eta behin, sopoloztarrek argi dute etxebizitza gehiago eraikiz gero azken urteetan egin dena baino dentsitate handiagoarekin eraiki behar dela. Hau, noski, gehiago eraiki behar bada, Abaro eta Ripako garapenak Sopela bezalako herri batentzat nahikoa direla uste baitute. Beraz, etxebizitza-tipologiari dagokionez, argi dute etxebizitza-blokea dela aukera onena, baina egungo blokeen altuera gäinditu gabe (B+III). Dentsitate ertaineko etxebizitza defendatzen dute Ingesta aldean eraiki den adosatuen edo familia bakarreko etxebizitzaren aurrean. Lurzoru-azalera handiak erabili dituztelako etxebizitza gutxi eraikitzeke. Gainera, adierazi dute etxebizitza-eredu horrek ez diela erantzun Sopelako herriaren eta herritarren interesei, eta ez duela aukerarik ematen etxeen inguruan bizitza sortzeko. Mehatxu horren aurrean, landa-eremu gehiago ez okupatzea eta urbanizazio masiboa gelditzea eskatzen da.

Era berean, etxebizitzaren inguruko zerbitzuak hobetzea garrantzitsua dela adierazi da, bai gaur egungo etxebizitzarena, bai etorkizuneko obra berriarena. Funtsezkoa da etxebizitzek kalitatezko espazio publikoa, oinarrizko ekipamenduetarako sarbidea eta aparkalekuak izatea etxetik gertu. Aparkalekuari dagokionez, blokearen barruan egotea lehenesten da, horrela kaleetan oinezkoentzako leku gehiago izan ahal izateko.

Bigarrenik, eta beste udalerrri askotan gertatzen den bezala, etxebizitza hutsak herritarrek kezkatzen dituen gaia da. Sopelaren kasuan ez da soilik etxebizitza, merkataritza-etxabeeta lokal asko ere hutsik daude. Gai horren aurrean, ikerketa bat, diagnostiko bat eta Sopelako HAPOan bertan isla daitekeen neurriren bat eskatzen da, etorkizuneko urratsetarako. Lokal hutsen kasuan, interesgarria izan liteke aztertzea ea bideragarria den beheko solairuko espazio horiek etxebizitza bihurtzea. Etxebizitza horiek aukera polita litzateke adineko pertsontzat, baita gaur egun igogailurik gabeko etxebizitza-blokeetan bizi diren mugikortasun-arazoak dituztenentzat.

Hirugarrenik, etxebizitza-erduari alternatibak bilatzea beharrezkoa da. Etxebizitza eskuratzeko zailtasuna nabarmena da, prezio oso altua duelako. Horrenbestez, alokairu sozialeko etxebizitzak, zuzkidura-etxebizitzak, tutoretzapeko etxebizitzak edo adinekoentzako etxebizitza komunitarioak sustatzea irtenbide interesgarriak dira sopoloztarrentzat. Gaur egun, alokairuko etxebizitzaren eskaintza urria da, eta horrek zuzenean eragiten die emantzipatzeko zailtasun handiak dituzten eta askotan beren herria utzi eta inguruko herrietara bizitzera behartuta dauden biztanle gazteenei.

Azkenik, garrantzia bereko beste gai bat aipatu behar da, pisu turistikoei dagokiena. Sopela udalerrri erakargarria da bertan bizitzeko, bere hondartzengatik eta metroaren konexioagatik, besteak beste. Hala ere, ez soilik bizitza garatzeko, turismoa egiteko ere erakargarria da. Horregatik, garrantzitsua da pisu turistikoa erregularizatzea.

## / JARDUERA EKONOMIKOAK

Sopela lo-herrizat hartzen da, non biztanle gehienek herritik kanpo lan egiten duten, udalerrri mugakideetan, eskualdean edota Bilbon. Askotan, errealitate horrek supermerkatu handietan kontsumitzea dakar. Egoera horren aurrean eta jarduera ekonomikoari dagokienez, herritarrek hiru proposamen argi dituzte: tokiko merkataritza bultzatzea, turismo iraunkorra sustatzea eta industria alternatiboa piztea.

Sopelako bizilagunak kexu dira udalerrian merkataritza gutxi dagoelako, eta arrandegiak, zapata-dendak, mertzeriak, arropa dendak... falta direla diote. Batez ere, Larrabasterra auzoko merkataritza-ehunaren eskasia aipatzen dute, bertan dagoen jatetxeen eskaintzaren aurrean. Egoera horren aitzinean, positibotzat jotzen da hirigunea oinezkotzea, esku-hartze horrek saltoki txikiei mesede egingo baitie. Era berean, saltokien eskaintza eta barietate handiagoak eta haietara iristeko azpiegitura egokiak Sopela lo-hiria izaten jarraitzeari aurre egiten lagunduko dute.

Sopelak, kostaldeko herria den aldetik, berezko erakargarritasuna du. Objektibotasun horren aurrean, turismo iraunkorra eta berdea sustatzea oso garrantzitsua dela uste da. Turismo iraunkorraz eta berdeaz ari garenean, bisitarien beharrak asetzeaz ari gara, udalerrriaren etorkizuneko aukerak babestuz eta areagotuz, eta masifikaziorik gabeko eta ingurumena errespetatzen duen lekua sustatuz. Herritarrek horretarako hainbat jarduera sortzea proposatzen dute, hala nola, Ingesta inguruan auto-karabanentzako aparkaleku zabal eta berdea, aterpetxe publikoa eta enplegua sortzea, soldata publiko eta duinekin, edota saltoki txiki gehiago Larrabasterra auzoan. Uste da turismo alternatibo honek, eta bertako surf-aren industriak, Sopelako jarduera ekonomikoari mesede egin diezaioketela, toki turistifikatu eta masifikatu bat sortu gabe.

Bigarren sektoreari dagokionez, Sopelan ez dago industria askorik. Industriaguneak ondoko herrietan kokatzen dira. Errealitate hori ez da kezagarria, mantendu beharreko zerbait baizik. Aitzitik, interesgarritzat jotzen da industria berriak erakartzeko eta ezartzeko aukera: industria txikia eta ertaina, industria garbiak, teknologia berriak, energia berriztagarriei dagokionak...

Gainontzeko sektoreak ez dira ahaztu behar: lehen sektorea eta hirugarren sektorea. Alde batetik, hirugarren sektorerako espazioak sortzeak tokiko enplegua sustatuko duela uste da. Bestalde, lehen sektorea indartzea ezinbestekotzat jotzen dute. Abeltzaintza eta nekazaritza sopoloztarra mantendu eta zaintze aldera, herrian bertan salmentarako guneak sortzea proposatzen dute.





## / HIRIGINTZA GARAPENAK

Kokapen geografiko ona, konexio egokia eta kostaldearekiko hurbiltasuna kontuan hartu beharreko indarguneak dira Sopelako udalerrian izaera desberdineko hirigintza-garapenak planifikatzeko eta gauzatzeko orduan. Herri izaera ere sendotasuntzat jotzen dute, eta mantendu beharreko alderditzat.

Bizitegi-garapenak Sopelako herritarrek nahi eta behar duten etxebizitza- eta hiri-eredua birpentsatzeko aukera gisa ikusten dira: etxebizitza irisgarriak, alokairu sozialekoak... Azken urteotan, dentsitate txikiko bizitegi-garapenak eraikitzeke joera egon da, eta, egoera horren aurrean, egokiagoztat jotzen da atzera egitea eta dentsitate handiagoko etxebizitzak eraikitzea, B+III egungo altuera gainditu gabe. Ildo horretan, adierazten da eremu urbanizagarriak ez handitzea, eta gaur egun eremu urbanizagarritzat kalifikatutakoetan eraikitzea. Horrela, hiri-bilbea osatu eta trinkotuko delako. Abaro eta Ripa eremuetarako aurreikusitako garapenak aipatu dira, populazio-hazkunderako 'nahikoa eta sobera' bezala identifikatuz.

Udalerraren balizko hazkunde horren aurrean, ekipamenduen gaiari erantzun beharko zaio. Gaur egun txiki geratu dira, eta etorkizunean, Sopelako herritar guztien beharrak aintzat hartu eta asetu beharko dituzte. Hala ere, udalerraren hedapen masiboaren aurrean eta hori eragozteko, garrantzitsutzat jotzen da landa-eremuak eta natura- eta paisaia-eremuak babestea.

Hirigintza-garapen guztietan, erabilera nagusia edozein dela ere, konektibitatea, mugikortasuna eta irisgarritasuna funtsezko faktoreak izan behar dira. Hirigintza eraldaketarako jarduera estrategiko berrien diseinuan, oinezko zein bizikletazko konexioa hartuko da kontuan, baita garraio publikorako hurbiltasuna edo sarbidea ere. Etorkizuneko garapen horietan erabilerak nahastea interesgarritzat jotzen da.



